

Eskuan beti zerbait Maialen Berasategi



HELDU LEPOTIK

Inbidia pixka bat edo dezentekoa
baldin badiozu ahizpari
ez lotsatu
eta ez harrotu.

Hor dago, altua da eta ederra
eta lokutatzen daki lanean etxean tabernan.

Jarri inbidia ispiluan
heldu fuerte lepotik, ez dadila eskapa
begiratuko dizu hortzak agerian
baina ez dira zure hortzak, gogoan izan:
baden arren zure munstroa.

Galdetu nork egin duen ispilua
nork jarri dizun parean, zertarako.

Eseri lasai, deitu ahizpari
jarriozu zerbait biguna ipurdi azpian
eta esan...

Liburuaren zatia

ESTEKA

* <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20210528/maialen-berasategiren-eskuan-beti-zerbait-bildumak-jaso-du-dk-poesia-saria>

* <https://www.diariovasco.com/culturas/maialen-berasategi-catalanek-20210325140222-nt.html>

* <https://bizkaie.biz/1617971288618#1>

LIBURUTEGIA
TERTULIAK
EUSKARAZ 2023



Maialen Berasategi

DOSSIERRA

Eskuan beti zerbait



TERTULIA

2023/06/15
18:30 - 20:00

Nerea Loiola
dinamizatzailea



Maialen Berasategi Catalán (Gasteiz, 1989ko apirilaren 25a) itzultzailea eta zuzentzailea da.

Itzulpengintzan eta Interpretazioan lizentziaduna da (EHU). Gaur egun, Berria egunkarian dihardu itzultzaile eta zuzentzaile lanetan, eta hainbat lan ekarri ditu euskarara. Horrez gainera, Susa argitaletxearen “Munduko Poesia Kaierak” bildumaren zuzendaria da, Isabel Etxeberria Ramirezekin batera. Halaber, zutabegile dihardu Argia aldizkarian, eta Berriako “Hirudia” atalean eta Alea aldizkarian aritutakoa da.

Itzulpenak

Narratiba

* Rebecca West: Soldaduaeren itzulera (Erein, Igela, 2014). Literatura Unibertsala bildumako lana.

* Abdulrazak Gurnah. 2021eko Literaturako Nobel sariaren Paradisua. Joxe Mari Berasategirekin.

Poesia

* Adrienne Rich: Poesia Kaiera [antologia] (Susa -Munduko Poesia Kaierak-, 2017).

Saiakera

* Nancy Fraser: Kapitalaren lantegi ezkutua (Susa, 2021). Mirentxu Larrañaga, Danele Sarriugarte eta Irene Arraratsekin elkarlanean itzulia.

* Adrienne Rich: Emakumeagandik jaiok: Amatasuna esperientzia eta instituzio gisa (Txalaparta, 2020).

* Carole Pateman: Kontratu sexuala (Elkar, Jakin; Eskafandra bilduma, 2018).

* Monique Wittig: Pentsamendu heterozuzena (Susa; Lisipe bilduma, 2017). Danele Sarriugarte, Mirentxu Larrañaga eta Irene Arraratsekin elkarlanean itzulia.

* Walter Benjamin: Literatura oharrak (2015, Sans Soleil). Garazi Arrula, Gaizko Urturi Aldama eta Mikel Igartuarekin batera itzulia.

* Clara Zetkin: Faxismoaren aurka borrokan (Testu nagusiak 1923ko bi txosten dira) (Katakarak, 2022).

Haur eta gazte literatura

* Jordi Bayarri: Galileo: izarren mezularia (Ikaselkar, 2017).

* Jordi Bayarri: Darwin: teoriaren eboluzioa (Ikaselkar, 2017).

* Jordi Bayarri: Marie Curie: radioaren aktibitatea (Ikaselkar, 2015).

* Jordi Bayarri: Newton: grabitatea ekinean (Ikaselkar, 2015).

* Ainhoa Redondo Pescador: Tres minutos (Cénlit, 2014). Euskaratik gaztelaniara itzulia.

* Marliese Arold: Ninak ospa (Elkar, 2010). Joxe Mari Berasategirekin itzulia.

Lan propioak

Poesia

* Eskuan beti zerbait (Balea Zuria, 2021). Donostia Kultura poesia lehiaketa irabazi ondoren argitaratu du lan hau.

Sariak

* 2021ean IV. Donostia Kultura poesia lehiaketa irabazi zuen Altzarienean poema bildumarekin.

Balea Zuriak argitaratu du lana: Eskuan beti zerbait.

https://eu.wikipedia.org/wiki/Maialen_Berasategi

Eskuan beti zerbait / Maialen Berasategi Catalan / Balea Zuria, 2021

Kolpeak altzairu-kantoiaren aurka Irati Majuelo / Berria, 2021-10-10

Aurretik bere izena zenbait libururen itzulpenetan, Berriako zutabeetan zein zuzentzaile-lanetan ikusi dugun arren, hau da Maialen Berasategi Catalanen estreinako lan propioa: Eskuan beti zerbait. Donostia Kultura IV. Poesia Saria irabazita, Balea Zuria argitaletxearen eskutik iritsi da gure eskuetara, azken lau urteotan beste zenbait poeta gazteren sorkuntzekin egin duten gisan.

Poemario laburra bezain intentsua da Berasategirena, igande arrats batean irakurri baina aste oso-rako resaka uzten duena. Nola zen ezinegonaz ari zen hura? Berriz irakurtzeko gogo pizten duten poemak dira oro har, ez ulergaitzak direlako, belarri ertzean uzten dizuten oihartzunari berriz heldu nahi diozulako baizik, ea besterik dakarren. Ez da batere hasiera txarra lehendabiziko argitaratze batentzat.

Esango nuke hizkuntzarekiko segurtasunak eta kontrolak sostengatzen dituela poemok, begi kolpe bakar batez liburuaren tenperatura orokorra hartu nahian. Ukaezina da idazleak euskararen inguruan duen jakintza eta nabari da harekin egiten duela lan, sakonean. Halaber, ez du testua ukiezin bihurtzen, batzuetan gerta daitekeenez, idazkera zainduak ez du irakurlearengandik urruntzen. Hizkuntza jasoa du, bai, baina erabilerari oso emana da, adierazkortasuna bilatzen du zuzentasun hertsia baino areago, eta horrek eragin zuzena du poemen erritmoan eta estiloan. Aire freskoa nabari da lerroartean, zuzentzailearen lanetik askatzeko nahi bat, iparra galdu gabe. Bide horri tiraka, azpimarratzekoa da hitzak osatzeko ausardia, beharri egokitutako hizkuntza eraikitzeko lana, hiztegiaren menpe egon gabe sortzea. Hizkuntzaren erabiltzaile xumeoi gogorarazten digu erabilerak egiten duela lengoaia.

Poema bilduma hau ume baten pauso biluzi ez-zaratatsuz hasten bada ere, laster agertzen dira lehen kolpeak altzari-kantoiaren aurka. Lehendabiziko poemetan, entzimeren gainean edo gotelearen beste aldean sumatzen diren dardarak jartzen ditu agerian, seismo handirik sortu gabe baina. Ordea, indar zuzenagok interplatzen dute hurrengoek irakurlea: Heldu lepotik, Alaba txit heldua-rena, Algara, Desheredatuaren kantua; ezin esan ambiguotasunean ari denik jolasean, zinez poema helduak dira, politikotasun handikoak, poetikotasuna ahaztu gabe. Begirada feminista sakon bat du idazleak, panfletoaren beharrik ez duena.

Era berean, irudi interesgarriak sortzen ditu zenbait poematan, besteak beste Olagarroa amets, Iharri eta Lepamoztuaren poza, sarri umorerantz jotzen dutenak. Hala, ironiaren erabilera azpimarratu beharko litzateke Berasategiren idazkeran, zuku asko ateratzen dion baliabidea baita. Adibide zenbait aurki daitezke Zirimiri, Lautarra gora-gora edota Arnaskariari poemetan, zeinetan gaien larritasunei arintasuna ematea lortzen duen, berriz ere bueltan ireki den arrakala ikusarazteko.

Agian ez du guztizko batasun bat, geratzen dira airean zenbait poema batetik besterako trantsizioan, baina gehiagoren gosez geratzen da bat, ikusteko nora doan, zein den sigi-sagatsu hasitako bidezidorrak hartuko duen norabidea; zer erakutsi nahi duen, inongo plaza nagusitara iritsi eta bere burua monumentu handienaren gisa erakusteko inolako beharrik ez duen ahotsak. Umilaren zalantza eta ziurtasunetan hobeto funtzionatzen baitu poesiak, egia borobilen zilegitasun aurre-azarrian baina.

<https://kriticak.armiarma.eus/?p=8420>